



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Izurri Beltza sindikatu lanetan

Europa, 1353. Izurri Beltzaren erasoaldi bortitzena, bost bat urte lehenago hasitakoa, arintzen hasi zen, pandemiak oraindik ere tris-kantzak ekarri zituen arren. Europan 25 milioi hildako eragin zituen gutxienez eta Asia eta Afrikan, beste 40-60 milioi. Europan biztanleen herena hil zela esan ohi da, baina badira kopurua motz geratzen dela uste duten historialariak, eta porzentajea %60ra igotzen du zenbaitek.

Historialari marxisten arabera, feudalismoaren krisiak eragin zuen Izurri Beltzaren hondamena. Guy Bois (1934-2019) Erdi Aroko adituak zioenez, feudalismoaren “ondorio sozialak tamalgarriak izan ziren: nekazariak astintzen zituen pobretze prozesu gogorra hasi zen, eta horren froga izan zen 1300etik aurrerako heriotza tasaren hazkunde erregularrak (...) Izurri Beltza ez da istripu bat, testuinguru horretan ulertu behar den zerbaitez baizik”. Feudalismoak ez zuen *Yersinia pestis* bakterioa sortu, baina ahuldu-tako biztanleez elikatu zuen.

Lan harreman feudalek pandemia bultzatu zuten bezala, izurriak handik aurrerako lan harremanen aldaketa eragingo zuen, nahiz eta orduan langileen eskubideen aldeko mugimendu artikulaturik ez izan.

Despopulatzea orokorra izan arren, larriagoa izan zen landa eremuan, hilda-



PIETER BRUEGEL ZAHARRAREN HERIOTZAREN GARAIPENA (1562) LANAREN ZATI BAT.

koez gain, nekazari askok hirietara alde egin zutelako. Hiriak pixkanaka pizten ziren bitartean, feudoetan eskulan krisi larriak sortu zen. Errentak bizibide zituzten jauntxoek ikusi zuten beren lurak hustuta zeudela, uztak nork jaso ez zutela, prezioek behera egiten zutela, diru-sarrek bezalaxe. Lurrak oso merke saldu edo errentan ematea edo, bestela, nekazariak soldatak askoz handiagoak eskaintzea beste erremediorik ez zitzaion geratu. Izurri Beltzak, nolabait, “nekazaritza sektoreko negozioazio kolektiboan” ezusteko indarra eman zien langileei.

Eta burgesiari nekazaritzan inbertitzeko eta lurjabe gisa noblezia zaharra ordezkatzeko aukera eman zion. Jauntxo

zaharrek produkzioa bultzatzeko erabiltzen zituzten estrategia sinpleak –lur azalera handiagoa lantzea, nekazariak lan ordu gehiago eginda–bertan behera utzi zituzten burgesek, une horretan ez zirelako bideragarriak. Laborantza metodo berriak eta lana arrazionalizatzeko tresnak sartu zituzten, nekazarien baldintzak hobetuz.

Baina, Izurri Beltzaren “lorpenak” mugatuak izan ziren. Erreforma haiek ez zuten eboluzio positiborik izango handik aurrera langileen eskubideei dago kienez, finean, ugazaba berriek betiko helburuak zituztelako: irabaziak handitzea. Eta langileen baldintzak horren menpe egongo ziren luzaroan. ●



ARKADIA FIRMA ARCHEOLOGICZNA

Kondaira egiaztatua

Polonia hegoaldean, Jeżowe herri inguruan, azken mendetan kondaira bat zabaldu da: hango basoetan ezkutatuta haurren hilerri bat dago. Bada, berriki, S19 errepidea eraikitzeke lanean ari zirela, kondaira egiaztatu dute. 100 hilobitik gora aurkitu dituzte eta horietatik %80 inguru haurren arrastoak dira. Ehorzketak XVI. eta XVII. mendeetan egin zituzten, bakoitzak bere hilobia du eta, beraz, hilerriak ez zion larrialdi

bati edo ezohiko egoera bati erantzun. Gainera, haur gehienek txanpon bat dute ahoan, baina horrek ez ditu adituak harritu: Antzinaroko ohitura izan arren –Karonteren oboloaren erritualaren parte zen Grezian eta Erroman–, ohiturak luze iraun zuen; Pio IX.a aita santua, esaterako, oboloa ahoan zuela ehortzi zuten 1878an. Baina beste galdera bat utzi du agerian aurkikuntzak: non daude helduen gorpuzkinak? ●